

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

42/2022 Mozioa, maiatzaren 2koa, saharar herriari babesa emateko

Arabako Batzar Nagusi hauetako Lehendakaritza, Euskara, Berdintasun, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen I. Batzordeak, 2022ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, mozio hau onetsi zuen:

42/2022 Mozioa, maiatzaren 2koa, saharar herriari babesa emateko.

1. Arabako Batzar Nagusiek errefusatu egiten dute Espainiako Gobernuako presidentek Saharako autonomiaren inguruan Marokoko Erresumaren proposamenari emandako babesa.

2. Arabako Batzar Nagusiek adierazten dute Espainiako Estatuak erantzukizun zuzena duela Mendebaldeko Saharako gatazka politikoan, eta ondorioz, Espainiako Gobernuari eskatzen diote Nazioarteko Zuzenbidearen eta NBEren ebazpenen arabera irtenbide politiko bat aktiboki babestu eta ahalbidetu dezala NBEren, EBn eta gainerako Nazioarteko Erakundeetan. Alde horretatik, gobernu eta erakundeei eskatzen diete NBEren Saharako ordezkari pertsonal Staffan de Misturaren ahaleginak babes ditzatela, gatazkaren alderdien arteko negoziazio-prozesu politiko berrabiaraztea baitu helburu.

3. Arabako Batzar Nagusiek adierazten dute nahitaezkoa dela irtenbide politiko bidezko, iraunkor eta elkarrentzat onargarria den bat bilatzea, Nazio Batuetako Erakundearen ebazpenen arabera, Nazio Batuen Gutunaren printzipioen eta helburuen esparruan, eta alderdi guztien erantzukizuna eskatuz, ikuspuntu multilateral eta konstruktibo bat izango duen irtenbide bat izateko, eta, betiere, oinarrizko printzipio bat errespetatuz, alegia, Saharako herriaren autode-terminazio askerako eskubidea.

4. Arabako Batzar Nagusiek Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aintzatesten dute, eta Espainiako Gobernuari eskatzen diote Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aintzatetsi dezala.

5. Arabako Batzar Nagusiek adierazten dute funtsezkoa dela Mendebaldeko Sahararen gatazkari irtenbide politiko bat ematea, Magrebeko herrialdeen arteko eskualde-lankidetzarako eta eskualde horretako egonkortasunerako, segurtasunerako eta oparotasunerako.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 2a

Presidenteak

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA